



13/2020 TXOSTENA, ABENDUAREN 2KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA.

XEDEA: GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKI-PROPOSAMENA, ZEINAREN BIDEZ ADOSTASUNA ETA BAIMENA EMATEN BAITA BERARIAZ, SESTAO BERRI 2010 SA SOZIETATE PUBLIKOARI EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN BITARTEKO PROPIO PERTSONIFIKATUAREN IZAERA AITORTZEKO ETA HAREN ESTATUTU SOZIALAK ALDATZEKO.

I.- AURREKARIAK.

2020ko azaroaren 5ean, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu zuzendariak txosten bat eskatu zuen, Gobernu Kontseiluak hartutako erabaki-proposamen bati buruzkoa, zeinaren bidez adostasuna eta baimena ematen baitzen berariaz SESTAO BERRI 2010 SA sozietate publikoari Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera aitortzeko eta haren estatutu sozialak aldatzeko.

Eskaera Ondare eta Kontratazioko zuzendariari egin zitzaion, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen presidentea baita.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da espedientea (erreferentzia: AAAA_ACG_104611/20_05).

II. – EDUKIA.

Erabaki-proposamenaren xedapen-zatian honako erabaki hauek biltzen dira:

<<**Lehenengoa.**-Adostasuna eta baimena ematea, berariaz, SESTAO BERRI 2010 SA sozietate publikoari Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera aitortzeko.



Bigarrena.- *SESTAO BERRI 2010 SA*ren estatutu sozialak aldatzeko baimena ematea, eta, hala, haren 1., 2., 6., 14., 18., 20., 29. eta 31. artikuluei honako eduki hau ematea:

«1. artikulua. Izendapena eta aplikazio-arauak

Sozietateak SESTAO BERRI SA izena izango du, eta estatutu hauen arabera arautuko da, eta, haietan xedatzen ez denerako, sozietate anonimoak arautzen dituzten legeriaren eta merkataritza-xedapen osagarrien arabera, bai eta aplikagarriak diren arau juridiko-administratiboen arabera ere.

Sozietateak, birgaikuntzako hirigintza-sozietate izateari dagozkion birgaikuntza-funtzioak garatzeaz gain, bitarteko propioari egindako mandatuak jaso ahal izango ditu Sestaoko Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eskutik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluaaren arabera. Horretarako, Sestaoko Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren bitarteko propio pertsonifikatutzat jotzen da, ahalmen adjudikatzailer horren inguruan arau horren 32.4 artikulua ezartzen dituen eskakizun guztiak betetzen dituelako.

2. artikulua Sozietatearen helburua

a) Txabarri BEPBren garapen integrala egitea, bai eta beste edozein hiri-birgaikuntzako jarduketa ere, Sestaoko udal-barrutiaren eremuan, eta, horretarako, birgaikuntza-jarduketan obrak edo Birgaikuntza Plan Bereziak betearaztea dakarren beste edozein obra egitea.

b) Desjabetzeen onuradun gisa jardutea edo bide-sistema orokorretarako eskuratzeak eta eraispinak egitea, Jose Antonio Agirre Kale Nagusia luzatzeko, Sestaoko Zabalgunearen eta Sestaora Ballontiko korridoretik sartzeko ekialdeko bide mugakidearen ardatz egituratzaile gisa, eta Sestaoko udal-barrutiaren eremuan antzeko beste edozein jarduketatan.

c) Sestaoko udal-barrutiaren eremuan hirigintza-planak, proiektuak, kudeaketa-programak eta sozioekonomikoak idaztea.

d) Txabarri - El Sol Barrualdea Birgaitzeko eta Eraberritzeko Plan Bereziaren garapen errealerako aholkularitza teknikoa eta kudeaketakoa, eta antzeko beste jarduketa batzuk, Sestaoko udal-barrutiaren eremuan.



e) Sestaoko udal-barrutiaren eremuan desjabetutako eremuetako industria-jardueren eta negozioen lekualdaketa bideratua eta aholkatua egitea.

f) Desjabetutako eremuetako eta/edo lurralde-eremu horretan erositako etxebizitzetan bizi direnen lekualdaketa bideratua eta aholkatua gauzatzea.

g) Sestaoko Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzan etxebizitzaren eta/edo gizarte-gaien arloan eskumenak dituen sailarekin edo sailekin elkarlanean jardutea, udalerrian arazo ugari dituzten familiak birkokatzeko eta haiei ostatu ematearen gainean hartutako konpromisoak betetzeko, eta, hala, koordinazio- eta kudeaketa-eginkizunak betetzea, kasu horretan, haren mendeko beste erakunde batzuekin batera, eremuaren gizarte- eta hirigintza-birgaikuntza eraginkorrean eragina izan dezaketen enplegu-, merkaturatze- eta integrazio-planetan, alderdi sozialenaren edo elkarbizitzaren ikuspegitik. Bai eta hiri-berriztatzerako materialaren, ekintzaileen eta enpleguaren eta gizarte-integrazioaren arloan ere.

h) Energia-efizientzia hobetzeari lotutako energiako zerbitzuak ematea, tartean, hauek: energia-hornidura, energia-ekoizleei edo -merkaturatzaileei erosiz energia, energia kudeatuz eta instalazio kontsumitzaileak mantendu eta operatuz; guztia ere, bere kasa edo beste sozietate batzuen partaidetzaz, barne direla sozietateon kudeaketa, zuzentzea eta administrazioa.

i) Birgaikuntzako Plan Bereziak egiteko behar diren ondasun, obra eta zerbitzuak kudeatu, ustiatu eta zaintzea; orobat Birgaikuntza Integratuko Eremuetan sartzen diren gainerako ondasun, obra eta zerbitzuak.

j) Haren enpresa-helburuekin lotuta dauden jardueren inguruko laguntzak eta dirulaguntzak izapidetzea.

k) Sestaoko Gidaplanaren Zuzendaritza Batzordeak esleitzen dizkion jarduketak egitea, Akziodunen Batzarrak onartu ondoren.

l) Aurretik aipatutakoekin zuzenean edo zeharka zerikusia duen beste edozein xede.

2.- Sozietatearen enpresa-xedearen eta jarduketa-eremuaren barruan, lehentasuna izango du, gizarte- eta hirigintza-egoera eta haren garapenaren egokitasuna aintzat hartuta –bide-sistema orokorrak direlako–, desjabetzeen, eskuratzeen eta eraispenen inguruko jarduketan kudeaketak –gaien eskumena eta ardura duten erakunde publikoek finantzatu ondoren–, bai eta dagozkion ordezkio bizitokiak emateak ere, Jose Antonio



Agirre Kale Nagusia luzatzeko, Sestaoko Zabalgunearen eta Sestaora Ballontiko korridoretik sartzeko ekialdeko bide mugakidearen ardatz egituratzaile gisa -zehazki, Rivas eta San Ignacio kaleetan deskribatutako higiezinak eta Simondrogasen daudenak-.

6. artikulua. Egoitza soziala

Sozietatearen egoitza Sestao udalerriko Hiru Kontzejuen plazako 1. zenbakiko etxabea izango da.

Administrazio-organoak eskumena izango du egoitzaren lekualdaketa adosteko udal-mugartearen barruan, bai eta sukurtsalak, agentziak edo delegazioak sortzeko, ezabatzeko edo lekualdatzeko ere.

14. artikulua.

Batzar Nagusia bazkide guztiek eratzen dute; batzorde mistoa da.

Batzar Nagusiak deialdi, eraketa, prozedura, bozketa eta Estatutu hauetan berariaz aurreikusten ez den guztian erabakiak hartzeko, kapital-sozietateak arautzen dituen araudian aurreikusten diren xedapenetara egokituko da eta, horretarako, toki-erregimeneko legeriak hala dagokionean eskatzen dituen eskakizunak beteko ditu.

18. artikulua.

Batzar Nagusiak honako eskudantzia hauek izango ditu:

- a) Administrazio Kontseiluko kideak izendatu eta banantzea.*
- b) Kapitala handitzea edo gutxitzea.*
- c) Erakundearen bat-egitea, zatiketa, eraldaketa eta desegitea erabakitzea.*
- d) Estatutu sozialak aldatzea.*
- e) Urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta emaitza aplikatzeko proposamena onestea.*
- f) Betebeharren serie zenbakituak ematea.*
- g) Kontu-ikuskariak izendatzea.*
- h) Ekintza-erabakia hartzea administratzaileei erantzukizuna eskatzeko.*
- i) Akzioen eskualdatzea baimentzea.*
- j) Kapital-sozietateen araudiak, toki-erregimeneko legeriak eta estatutu hauek Batzar Nagusiei esleitzen dizkieten gainerakoak.*



20. artikulua.

Administrazio Kontseilua sozietatearen kudeaketaz eta besteekiko harremanez arduratuko den organo exekutiboa da, eta sozietatea ordezkatzeko duena, bai epaiketetan, bai epaiketetatik kanpo.

Administrazio Kontseiluak sozietatearen "Kontratazio Organo"aren izaera izango du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (urriaren 30eko 9/2017 Legea) edo hura ordezkatzeko duen araudiaren ondorioetarako; hala ere, eskuordetzeak egin ahalko ditu beste edozein organotan edo sozietateko kargutan.

Administrazio Kontseilua hamar pertsonen osatuta egongo da. Bazkide bakoitzak Administrazio Kontseiluko kideak proposatzeko ditu, kapital sozialean duen partaidetzarekin proportzioan, eta Batzar Nagusiak izendatzeko ditu.

Karguak izateko toki-araubideko xedapenek zehazten dituzten ezgaitasun eta bateraezintasunek eragingo diete kontseilariei, baita Sozietate Anonimoen Legeak ezartzen dizkietenak ere.

Kontseilariek kargua bost urtez beteko dute, zinegotziak edo beste kargudun hautatu bat izan ezean; horiek, karguaren iraunaldian beteko dute kargua, eta berriro hautatu ahalko dira, behin edo gehiagotan, iraupen bereko aldietarako. Akziodunen Batzar Nagusiak kargugabetu ahalko ditu Administrazio Kontseiluko kideak. Nolanahi ere, kargua uzten duten kontseilariek jardunean jarraituko dute, harik eta berriak izendatu arte.

Artikulua. 29.

Sozietatea desegitea eta likidatzea, kausei, prozedurari eta ondorioei dagokienez, kapital-sozietateen araudian xedatutakoaren arabera arautuko da.

31. artikulua. Mandatuen araubide juridikoa eta administratiboa, Sestaoko Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren bitarteko propio gisa.

Sestaoko Udalak eta Euskadiko Autonomia Erkidegoak bitarteko propio duten sozietatearekin dituzten harremanek izaera instrumentala eta ez-kontratuzkoa dute, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (9/2017 Legea) 32. artikuluan aurreikusten diren mandatuen bidez antolatu ahalko dira; horrenbestez, ondorio guztietarako, barne eta mendeko izaerakoak dira.



Botere adjudikatzaille horiek Sozietateari jardueraren bat egiteko aginduz egiten dioten jakinarazpena jarduera horri ekiteko agindua izango da; hala ere, 9/2017 Legearen 32.6.b) artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

Emandako zerbitzuengatik konpentsazioa ezartzeko, tarifa hauek hartuko dira erreferentziatzat: sozietateak eginiko mandatuaren xede diren jardueretarako mandatura egiten duen botere adjudikatzailleak onetsitako tarifak, eta Estatuak erregelamenduz erabakitzen duen moduan. Horretarako, mandatuaren xede diren eta enpresaburu partikularrekin azpikontratatzeko diren jardueretarako bitarteko propioak jasandako egiazko kostuari erreparatuko zaio, kostu hori txikiagoa denean azpikontrataturako jarduerari tarifak aplikatuzetik heldu dena baino.

Tarifa horiek, betiere, bitarteko propioak zuzenean ekoiztako unitateak egiteko benetako kostu guztiak jasotzeko moduan kalkulatu dira. Mandatuaren tarifak edo konpentsazioak mandatuko prestazioaren balioa estali beharko du, eta hura kalkulatzeko, zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak izan beharko dira kontuan. Tarifek inolaz ere ez dituzte onura-marjinak izango, eta haietan likidazio partzialak egin ahalko dira ekitaldi bakoitzaren kontura, baina, halere, behin betiko likidazioa egingo da.

SESTAO BERRI SAK ezingo du parte hartu Sestaoko Udalak edo Euskal Autonomia Erkidegoak deitutako enkante publikoetan, nahiz eta agindu ahalko dion enkantearen xede zen prestazioa emateko, lizitatzailerik aurkezten ez bada.

Urte anitzeko mandatuen kasuan, likidazioa egingo da aurrekontu-ekitaldi bakoitza ixtean, nahiz eta jarduketa amaitua aitortu eta egiaztatu egingo den legez ezarritako baldintzetan, eta dagokion dokumentua emango da, eta likidatu egingo da, gehienez hurrengo hiru hilaren barruan».

Hirugarrena.- *Kontrol Ekonomikoko Bulegoari agintzea egiazta dezala lehen puntuan aipatu den erakundeak bitarteko pertsonal eta material egokiak ote dituen agintzen zaizkion mandatuak egiteko, betiere Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera. Lege horren bitartez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.*

Laugarrena.- *Akordio hau helaraztea lehen puntuan aipatutako erakundeari, haren estatutu sozialak egokitu ditzan, eta, horrela, sozietatearen aitortzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren berezko bitarteko gisa, bai eta proposatutako gainerako ondorioak ere>>.*



III.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Jakinarazten den Akordio-proposamenaren helburua, batetik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.2.d) artikuluan xedatutakoa betetzea da, zeinak Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baititu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak, hemendik aurrera, SPKL; eta, bestetik, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. Tituluko 1. Sekzioan xedatutakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzkoa:

SPKLren 32. artikuluen 4. apartatuan azaltzen da zer baldintza bete behar dituzten pertsona juridikoek, zuzenbide publikoek nahiz zuzenbide pribatukoek, elkarren artean independenteak diren botere adjudikatzaileren bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzeko:

<<4. Elkarrekiko independenteak diren bi botere adjudikatzaileren edo gehiagoren bitarteko propio pertsonifikatutzat hartuko dira baldintza hauek guztiak betetzen dituzten zuzenbide publikoko zein zuzenbide pribatuko pertsona juridikoak:

a) Mandatuak eman diezazkioketen botere adjudikatzailerek beren zerbitzu edo unitate propioekiko izan lezaketaren antzeko kontrol bat izatea, batera, horien hartzailea den entearen gainean.

Baterako kontrol bat izateko, honako baldintza hauek guztiak bete behar dira:

1. Mandatuaren hartzaile den entearen erabakitze-organoetan ordezkaritza izatea hari mandatuak eman ahal dizkioten ente guztiak; halakoetan, ordezkarri bakoitzak azken horietako batzuk edo guztiak ordezkatu ahalko ditu.

2. Azken horiek zuzenean eta batera eragin erabakigarria eduki ahal izatea mandatuaren hartzaile den entearen helburu estrategikoei eta erabaki garrantzitsuei buruz.

3. Mandatuaren hartzaileak ez izatea mandatuak eman ahal dizkioten entearen interesen aurkakoak diren interesak.

Ordaindu beharreko konpentsazioa ezartzeko, tarifa hauek hartuko dira erreferentziatzat: bitarteko propio pertsonifikatuak nagusi duen erakunde publikoak onetsita dauzkanak bitarteko propioak zuzenean egiten dituen eta mandatuaren xede diren jardueretarako. Eta, horretarako, mandatuaren xede diren eta enpresaburu partikularrekin azpikontratatzaren jardueretarako bitarteko propioak jasandako egiazko kostuari erreparatuko zaio, erregelamenduz erabakitzen den eran erreparatu ere, kostu hori txikiagoa denean azpikontratatuak jarduerari tarifak aplikatuz heldu dena baino.

Tarifa horiek, betiere, bitarteko propioak zuzenean ekoiztako unitateak egiteko benetako kostuak jasotzeko moduan kalkulatu dira.



b) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egin daitezela hura kontrolatzen duten botere adjudikatzailerik –edo botere adjudikatzailerik horiek bere kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez. Ehuneko 80 hori artikuluko honen 2. apartatuaren b) letran ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

Letra honetan ezarritako baldintza betetzen dela mandatuaren ente hartzailearen urteko kontuetan islatu beharko da, oroitidazkian, eta, horrenbestez, kontuen auditoreak egiaztatu beharko du, urteko kontu horien auditoria egitean, kontuen auditoriaren jardura arautzen duen araudiari jarraituz.

c) Artikuluko honen 2. apartatuko c) eta d) letran ezarritako baldintzak betetzea>>.

Bestalde, SPKLren 32. artikuluko 2. apartatuko c) eta d) letrak honako hau xedatzen dute:

<<c) Mandatuaren hartzailea pertsona juridiko eta pribatua bada, gainera, bere kapital edo ondare osoa titulartasun edo ekarpen publikokoa izan behar da.

d) Mandatua egiten duen botere adjudikatzailerik zehatzari dagokionez, mandatuaren hartzaileak duen izaera, hau da, baliabide propio pertsonifikatua estatutuetan edo sortze-ekintzetan aintzatetsi behar da berariaz, honako betekizun hauek beteta:

1. Botere adjudikatzailerik berariazko adostasuna edo baimena, baliabide propioa izango denari dagokionez.

2. Baliabide propioa izango dena erakunde publiko baten mende egon behar da, eta erakunde horren egiaztapena behar da, non azalduko den langile nahikoak eta baliabide material egokiak dituela mandatuak egiteko, helburu sozialekin bat etorrira.

Mandatuaren hartzaile den entearen estatutuek edo sorrera-ekintzak honako hauek zehaztu beharko ditu: enteak izaera hori zer botere adjudikatzailerik duen, eta eman ahal zaizkion mandatuaren araubide juridiko eta administratiboa zein den. Gainera, estatutuek edo sorrera-ekintzak bitarteko propioari debekua ezarriko diote bere botere adjudikatzailerik deitutako lizitazio publikoetan parte hartzeko –halere, lizitatzailerik bakarra ere aurkezten ez denean, mandatua eman ahal izango zaio enteari lizitazioaren xede diren prestazioak emateko–.

Letra honen 2. zenbakian ezarritako baldintza, nolahi ere, enteak dauzkan talde, azpitalde eta kategoriei dagokien sailkapena lortu duenean pentsatuko da betetzen dela>>.

Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenaren bigarren erabakia dela eta, proposamena egin duen sailak balioetsi behar du komenigarria ote den SESTAO BERRI SAREN estatutu sozialen 1. artikuluko bigarren lerrokadan zehaztapen hau egitea: sozietateak Sestaoko Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren eskutik mandatuak



jaso ahalko ditu, zeinak bitarteko propio pertsonifikatuari eginikoak izango baitira, sozietatearen helburuarekin bat datozen eta jarduteko lurralde-eremuaren barruan dauden prestazioak emateko, kontuan izanik lurralde-eremua Sestaoko udalerrria dela.

Aurrekoarekin lotuta, estatutu sozialen 2. artikuluko h), i) eta j) letren testuan adierazten da letra horiek aipatzen dituzten prestazioak Sestaoko udal-barrutiaren eremuaren barruan egingo direla.

Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenaren hirugarren erabakiari eta transkribatutako SPKLren 32.2 artikulua d) letraren azken lerrokadan aurreikusitakoari dagokienez, egiaztatzen da SESTAO BERRI 2010 SA sozietate publikoa ez dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan sailkatuta; horregatik, nahitaezkoa da Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiaztatzea erakunde horrek bitarteko pertsonal eta material egokiak dituela agindu liezazkioketen mandatuak egiteko.

Aurrekoarekin lotuta, auditore independente batek 2017, 2018 eta 2019ko ekitaldien inguruan bidalitako urteko kontuen ikuskaritzaren txostenak kontsultatu ondoren –ez daude Tramitagune aplikazioaren bidez izapidetutako espedientean– ikusten da batez besteko enplegatu kopurua bederatzi dela 2017 eta 2018ko ekitaldietan, eta hamaika 2019an.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. Tituluko 1. Sekzioak arautzen du <<bitarteko propioen eta zerbitzu teknikoaren izaera aitortzea>>:

«60. artikulua. Organo eskuduna.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eremuan, nahitaez bete beharreko mandatuen hartzaile izateko ezarrita dauden lege-baldintzak betetzen dituzten erakundeek aldeztu behar dute Administrazio Orokor edo Instituzionalaren bitarteko propio eta zerbitzu tekniko izatearen berriazko adierazpena, Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez. Erabaki horretan zehaztuko da erakundeak zer saili atxikiko zaizkion horretarako. Adierazpen hori aurrez ezeztatu daiteke, Gobernu Kontseiluaren erabaki arrazoitu baten bidez.

61. artikulua. Prozedura.

1.- Interesa duen Sailak hasiko du prozedura, eta egokitzen hartutako txosten teknikoak, administratiboak, ekonomikoak eta juridikoak erantsiko dira espedientean. Hura



izapidetzen den aldi berean izapidetu ahal izango da erakundea sortzeko beharrezko prozedura edo erakundearen estatutuak zein arauak aldatzeko prozedura.

2.- Nolanahi ere, espedientean dokumentu eta txosten hauek egon beharko dute:

a) Estatutuak, sortze-arauak eta, oro har, erakundearen jarduera eta borondate propiorik eza (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mende egoteagatik) agerrarazten duten antolaketa-arloko dokumentuak. Erakundea sozietate bat bada, berariaz egiaztatu behar da kapital osoa titulartasun publikokoa dela.

b) Aitorpena, egiaztatzen duena erakundearen ustiapen-sarrerak batez ere Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerako erakundeetakoak edo beste hirugarren batekoak direla, betiere sarrera horiek administrazioak berak dagozkion eskumenak baliatuz hartutako erabakiek zuzenean eragindakoak badira. Aitorpen horrek oinarri erabiliko duen informazioa erakundearen urteko kontuen memorian adierazitakoa izango da.

Lehen adierazitako baldintza betetzen dela egiaztatzeko, aurkeztu ahal izango dira, modu subsidiarioan, erakundearen kapital- eta ustiaketa-aurrekontuak, behar bezala onartuak.

c) Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenak.

d) Erakundeak esleituta duen zeregina sektore publikoko kontratuei buruzko oinarrizko legediak azpikontrataziorako ezartzen duen edo dituen mugak gainditu behar izan gabe betetzeko erabiltzen dituen giza baliabideen, antolakuntza-baliabideen eta baliabide teknikoaren egiaztatzea.

3.- Bitarteko propio edo zerbitzu tekniko izaera aitortzen duen Gobernu Kontseiluaren erabakia Kontratazio Publikoa Euskadin plataforman argitaratuko da, baita erakundea arautzen duen sortze-araudia edo estatutuak ere, eta mandatuek biltzen duten jardueraren eremua ere adieraziko da.

4.- Bitarteko propiotzat edo zerbitzu teknikotzat hartutako erakundeek Gobernu Kontseiluari jakinarazi behar diote, atxikita dauden sailaren bidez, zer aldaketa izan diren deklaraziorako kontuan izandako inguruabarretan, aitorpena baliogabetu egin behar den edo mantentzeko daitezkeen ikusteko».

Aurretik esan bezala, zuzenbide publikoko edo zuzenbide pribatuko pertsona juridikoek, elkarren artean independenteak diren bi botere adjudikatzailearen edo gehiagoren bitarteko



propio pertsonifikatutzat hartzeko, bete beharko dituzten baldintzen artean –SPKLren 32. artikulua 4. apartatua azaltzen direnak– honako baldintza hau adierazten da b) letran:

<<Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egin daitezela hura kontrolatzen duten botere adjudikatzailerik –edo botere adjudikatzailerik horiek bere kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez. Ehuneko 80 hori artikulua honen 2. apartatuaren b) letran ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

Letra honetan ezarritako baldintza egiaz betetzen dela mandatuaren ente hartzailearen urteko kontuetan islatu beharko da, eta, horrenbestez, kontuen auditoreak egiaztatu beharko du, urteko kontu horien auditoria egitean, kontuen auditoriaren jardura arautzen duen araudiari jarraituz>>.

Bestalde, SPKLren 32 artikuluko 2. apartatuko b) letrak honako hau xedatzen du:

<<b) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egiteko mandatu ematen duen eta hura kontrolatzen duen botere adjudikatzailerik –edo mandatu ematen duen erakundeak era berean kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez.

Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 hori kalkulatzeko, honako hauek hartuko dira aintzat: negozioen bolumen orokorraren batezbestekoa; botere adjudikatzailerik emandako zerbitzuengatik izandako gastuak, edozein entitaterik emandako prestazioen truke bitarteko propioak izan dituen gastu guztiak aintzat hartuta; edo jarduerari buruzko beste edozein adierazle fidagarri. Hori guztia mandatu formalizatu aurreko hiru ekitaldiei dagokienez.

Mandatu formalizatu aurreko hiru ekitaldietako negozio-bolumen orokorra edo – aurreko paragrafoan ezarri bezala– jarduerari buruzko beste adierazlerik eskura ez badago mandatu ematen duen botere adjudikatzailerik sorrera-data dela-eta, haren jardueraren hasiera dela-eta edo haren jarduerak berrantolatu direla-eta, edo indarra galdu badute, nahikoa izango da jardura-mailaren kalkulua errealitatearekin bat datorrela egiaztatzea, negozio-proiektzioen bitartez bereziki.

Letra honetan ezarritako baldintza egiaz betetzen dela mandatuaren ente hartzailearen urteko kontuetan islatu beharko da, eta, horrenbestez, kontuen auditoreak egiaztatu beharko du, urteko kontu horien auditoria egitean, kontuen auditoriaren jardura arautzen duen araudiari jarraituz>>.

SPKLren 32.2.b) artikuluan eskatzen den jardura-baldintzaren kopurua kalkulatzeko, 2019ko martxoaren 22ko «Baterako zirkularra» eman zuen, Estatuko Abokatutza



Orokorrena-Estatuko Zerbitzu Juridikoaren eta Estatuko Administrazioako Esku-hartzailtza Nagusiaren Zuzendaritzarena, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 9ko 9/2017 Legean eskatzen den jarduera-baldintzaren kopurua kalkulatzeko irizpideei buruzkoa, bitarteko propiotzat hartzen diren erakundeetan».

Zirkularrak gogorarazten du ehuneko 80ko baldintza kalkulatzeko, bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzen diren erakundeek urteko kontuen memorian jakinarazi behar dutela baldintza hori benetan betetzen dutela eta auditoreak egiaztatu egin behar du kontuen auditoretza-lanean. Eta gogorarazten du 2018ko ekitaldiaren gainean egindako urteko kontuak lehenak izango direla behartuta jarduera-baldintza betetzeari buruzko informazioa memorian ematera, eta, horrenbestez, auditoreak informazio hori egiaztatu beharko duen lehenengo urteko kontuak izango direla.

Horrekin lotuta, auditore independente batek 2018 eta 2019ko ekitaldien inguruan emandako urteko kontu-ikuskaritzako txostenetan jarduteko betekizuna betetzeari dagokion informazioa jaso da, eta honako hau adierazten da bietan: << [...] *ikuskatutako urteko kontuen arabera, Sozietateak eginiko jardueren % 100,00 Sestaoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak esleitutako zereginak dira [...]>>. Berriz, informazio hori ez da 2017ko ekitaldiaren urteko kontu-ikuskaritzako txostenean jasotzen, nahiz eta kontuan izan behar den hura ez zela derrigorrezkoa kontu-ikuskariarentzat ekitaldi horretan; derrigortasuna 2018ko ekitaldiko urteko kontuen inguruan hasi zen, SPKL indarrean jarri ondoren. Hala ere, SPKLren 32 artikuluko 2. apartatuko b) letran –hartara bideratzen du artikuluko horren 4. apartatuko b) letrak– lege-eskakizunaren betearazpena zehazteko aukera eman dezakeen informazioa duten jarduera-adierazleen erreferentzia jaso da. Ondorio horietarako, Tramitagune aplikazioaren bidez izapidetu den espedientean honako txosten hau jaso da: *SESTAO BERRI 2010 SAk Sestaoko Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren bitarteko propio pertsonifikatu gisa duen izaerari buruzko txostena; 2019ko abenduaren 13an egin zuen aholkularitza-enpresa batek. Bertan, Estatuko Abokatzutza Orokorren-Estatuko Zerbitzu Juridikoaren eta Estatuko Administrazioako Esku-hartzailtza Nagusiaren Zuzendaritzaren 2019ko martxoaren 22ko baterako zirkular horren gogoetak aintzat hartuta, 2016-2017 ekitaldien eta 2018 ekitaldiaren zenbatekoen batezbestekoa adierazten da: << [...] *SESTAO BERRI 2010 SA sozietate publikoak eginiko jardueraren bolumena agindutako egitekoen ondoriozko jardueretan % 88,06koa da, diru-sarrerak adierazletzat jota, eta % 85,14koa, gastuak adierazletzat jota; beraz, gainditu egiten da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (9/2017 Legea) 32.4.b) artikuluko ezarritako % 80ko ehuneko*>>. Batezbesteko hori zehazteko aintzat hartu diren zenbatekoak direla-eta, ikusten da zenbatekoak ez datozela bat: batetik daude kontu-ikuskari independente batek emandako urteko kontuen ikuskaritzaren txostenetan jasotako kontzeptuen zenbatekoak**



—2017 eta 2018 ekitaldietakoak— eta, bestetik, merkataritza-etxe horren txostenean jaso diren kontzeptuen zenbatekoak.

Kontuan hartuta aholkularitza-enpresa horrek egindako txostenean jasotako jardute-betekizuna betetzeari buruzko informazioa ez dagokiola SPKLren 32. artikulua aipatzen dituen aurreko hiru ekitaldien batezbestekoari, espedientean informazioa faltako litzateke 2017 ekitaldiko jardute-betekizuna betetzeari buruz. Inguruabar hori dela medio, txosten honetan ezin da aztertu eta, halaber, ezin da erabaki SESTAO BERRI 2010 SAK SPKLren 32.4.b) artikuluan jasotako baldintza betetzen ote duen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzeko.

Estatuko Abokatutza Orokorraren-Estatuko Zerbitzu Juridikoaren eta Estatuko Administrazioako Esku-hartzailetza Nagusiaren Zuzendaritzaren 2019ko martxoaren 22ko Baterako zirkular horretan honako hau adierazten da: <<[...] kontuan hartu behar den jardura "botere adjudikatzailerak egindako adjudikazio baten arabera egiten dena izango dela, eta hori alde batera utzita jardura hori nork ordaintzen duen, botere adjudikatzailerak bera izan daiteke ordaintzen duena edota eskainitako zerbitzuen erabiltzailerak (...)" bitarteko propioak berak egiten dituen jardura guztiei dagokienez.

Ildo horretan, bitarteko propioak aukeratutako adierazleak fidagarria eta arrazoizkoa, kuantifikagarria eta kontrastagarria izan behar du, eta, nolahi ere, arrazoizkotasunaren balorazioan kontuan hartu behar da **hautatutako adierazleak bitarteko propioak egindako jarduerarekin lotuta dagoela**, botere esleitzailerak emandako mandatuen baliatuz, edo mandatuak egiten duen erakundeak modu berean kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek egindako mandatuarekin, eta ez emaitzekin edo beste magnitude batekin. Horrez gain, bitarteko propioak funtzio publiko bat betetzeko egindako jardueraren tratamendua aipatu behar da. Batzuetan, bitarteko propioaren izaera funtzio edo jardura publiko bat betetzen duten erakunde publikoetan gertatzen da, funtzio edo jardura hori egitea izanik erakunde horiek sortzeko arrazoia (zerbitzuen deszentralizazio funtzionala), eta, aldi berean, esleitu zaien funtzio publiko horretan sartuta ez dauden jarduerak egiteko mandatuen jaso ditzakete. Jardura nagusia ordenamendu juridikoak esleitutako funtzioak betetzea dakar, eta, beraz, ezin dira hirugarrenekin kontratatu modu orokorrean. Jardura mota hori hainbat modutan finantza daitekeenez, negozio kopuru globalaren adierazlearen zenbaketari eragin liezaioke, baina, orokorrean, ulertuko da transferentzien bitartez jasotako diru sarrerak eta jardura horretarako egindako gastuak zenbaketatik kanpo geratuko direla[...]>>.

Zirkularrean honako hau ere adierazten da: <<[...] Kontu-auditoreek jardura-baldintzaren egiatzena eta proba erraztearren, ulertzen da negozioen kopuru globala kontzeptuari buruzko interpretazioak murriztaileak izan behar duela, salbu eta kontrako



proba badago, eta hori, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak adierazi duenez, jardueratik etekina lortuko duenak egiaztatu beharko du, hau da, bitarteko propioak.

Oro har, ez dira jarduera horretako zatizat hartuko mandatu baten estaldurarik gabe egin direnak, eta justifikagarria izango da aldebakarreko ezarpenaren bitartez eta negozio juridiko honen ohar bereizgarriak izateagatik mandatu kontzeptuan sar daitezkeen kostuan oinarritutako konpentsazioarekin egin direnak. Beraz, adierazlearen zenbakitzailean jasotako mandatuei dagokien zenbatekoa sartu beharko da. Zenbakitzailean ez dira sartuko erakundeak ekitaldian lortutako ondare-arloko emaitza ekonomikoa islatzen duen egoeran azaltzen diren magnitude hauek:

- a. Erakunde publikoari legez agindutako administrazio-ahal edo funtzio publiko bat betetzetik eratorritako diru sarrerak, arau juridikoak aplikatuzetik eratorritakoak barne. Azken kasu horretan, bitarteko propiorako derrigortasun-aldagaia eta tarifen egituran oinarritutako mandatuaren konpentsazio-aldagaia badaude izan ezik.*
- b. Tributu-izaerako diru sarrerak.*
- c. Botere adjudikatzaiaren jardueraren xedearrekin lotutako diru sarreraren partidak (kanpokoak edo ez).*
- d. Transferentzia arruntak edo kapitalaren transferentziak erakundearen jarduera finantzatzeko, jardueraren instrumentazio juridikoa alde batera utzita, salbu eta egiaztata badaiteke transferentziaren bitartez egindako finantzaketa horren zati bat botere adjudikatzaitik jasotako mandatuekin lotuta dagoela zuzenean.*
- e. Diruz lagun daitezkeen jardueratik eratorritako diru sarrerak.*

Halaber, ondoren aipatuko diren partidak negozio-bolumen globalaren zifratik kanpo utziko dira; izan ere, emaitzen kontua osatuko duten ondare-arloko izaera ekonomikoko magnitudetzat hartuta, ez dute zuzeneko harremanik izango jarduerarekin agindutako mandatuak direla medio:

- a. Erakundeak bere ibilgetuarentzat egindako lanak.*
- b. Hornidura soberakinak.*
- c. Ibilgetua besterentzearen ondoriozko emaitzak.*

Adierazlearen izendatzailean honako magnitude hauek sartu beharko dira:

- a. Merkataritza-jardueraren salmentak eta bestelako diru sarrerak (baldin eta erakundea irabazi-asmorik gabeko erakundeen kontabilitate-planaren egokitzapenaren mende badago); negozioen zifraren zenbateko garbia (erakundea Kontabilitate-plan orokorrari lotuta badago) edo salmenta garbiak eta zerbitzuak ematea (erakundea kontabilitate publikoko planari lotuta badago).*
- b. Ustiapenerako dirulaguntzak.*



c. *Erakundearen jarduerarekin zuzeneko harremana duten kudeaketa arrunteko beste diru sarrera batzuk [...]>>.*

IV.- ONDORIOAK.

Hala, bada, proposatutako erabakia dela eta, espedientean ez denez 2017 ekitaldian jarduteko betekizuna betetzeari buruzko informaziorik jaso, ezin da aztertu eta, halaber, ezin da erabaki SESTAO BERRI 2010 SAK SPKLren 32.4.b) artikuluan jasotako baldintza betetzen ote duen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzeko.